



### **Teresa Laespada**

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna  
Sustatzeko Saileko diputatuak



DEMAren memoriari buruzko testu labur honi ekiteko, lehenik eta behin, Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentzia hau osatzen duten pertsonak aipatu behar ditut. Giza talde horri esker, gure enplegu politikak gauza daitezke eta, zoritxarrez, gaur egun oraindik langabezian dauden bizkaitar horiengana guztiengana hel daitezke.

DEMA ez da iritsi berria gure lurralde historikoko enplegu eta ekintzailtzaren mundura. Guztiz kontrakoa; agentzia honek 1989. urtetik jardun du enplegarritasuna eta garapen ekonomikoa sustatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimenak aplikatzen eta osatzen. Datorren urtean zenbat eta hogeita hamar urte beteko ditu. Ospatu beharko dugu, beraz.

Okertzeko beldurrik gabe esan dezakegu DEMA antolamendu publikoko proiektu kontsolidatua dela, esperientzia handia duena eta lanean jarraitzeko eta, ahal izatekotan, hobera egiteko prest dagoena. Beharbada esaera hutsak dirudite hitz hauek baina, egiatan, ekimen zehatzak dituzte oinarri.

Ekintzailtza eta enplegua sustatzeko programak, besteak beste Enplegu Anezkak eta Taldeka delakoak, behar adinako umotasuna lortu dute eta, beraz, arrakasta izan dutela esan dezakegu. 2018an deialdi gehiago egingo dira, eta arrakasta izaten jarraituko dute.

Horrez gain, hainbat programak, Eskutik eta Indartu programek, esaterako, enpresa berriei kontsolidatzen laguntzea dute helburu, batik bat lehenengo urtean, horixe izan ohi baita gainditzen zailena.

Ez dugu ahaztu behar Enpresari programa. Horri esker, lanbide heziketa ikasten ari diren gazte askok irudimenari eragin eta proiektu ekintzaileak sortzen dituzte; ondoren, tutoreen orientabideei esker, proiektu horiek bideragarriak izan daitezke. Urtero proiektu onenak saritzen ditugu. Elkartzeko eta ospatzeko une polita izaten da hori zainetan bizigarria duten gazte horientzat.

Eta 2018rako, proiektu berritzaileak prestatzen amaitzen ari gara, hala nola gazteen ekintzailtza ekosistema bat edo 'millennials' delakoei laguntzeko programa bat. Laburbilduz, onena iristear da DEMArentzat, Bizkaian enplegua eta ekintzailtza sustatzeko aldundiak duen tresna erabilgarri eta kontsolidatua baita.

# 2017

## JARDUERA ILDOAK

ENPRESARI PROGRAMA  
Ekintzailtza Lanbide Heziketan

ABIAN PROGRAMA  
Enpresen Sorkuntza

TALDEKA PROGRAMA  
Ekintzailtza Taldeak

ESKUTIK PROGRAMA  
Martxan Jartzea

INDARTU PROGRAMA  
Enpresen Sendotzea eta Hazkundera

ANEZKA ETA ENLANZAR  
Enplegu Anezkak

BIZKAIKER  
Bizkaiko Enplegu Behatokia

EKITALDIAK 2017  
Demak antolatutako jardunaldiak  
Partaidetza azoketan





# ENPRESARI

PROGRAMA

EKINTZAILETZA LANBIDE HEZIKETAN

## 2017KO JARDUKETA:

### Ekintzailletza eta ideiak garatzeko tailerrak

113 tailer egin dira ikasleen sormen eta ekintzailletza jokabidea sustatzeko, eta horretarako tailer bakoitzean enpresariak egon dira beraien esperientziak kontatzen. Garatze tailerretan, parte-hartzaileek ideia bat negozio batean edo enpresa batean bihurtzeko giltzarrien berri izan dute.

### Enpresa ideien lehiaketa

Ikasleek negozioarako 227 ideia aurkeztu dituzte gidoi eta ikus-entzunezko aurkezpenen bitartez, eta honako biak izan dira sarituak: Air soft duty, San José de Calasanz zentrokoa, Álvaro Cartagenak, Markel Minteguik eta Mikel Galarzak aurkeztutakoa, eta Camión fácil Elorrieta-Erremarikoa, Luis Leciñanak, Igor Iglesiasek, Christian Pérezek eta Anatoní Izotek aurkeztutakoa.

### Enpresa proiektuen lehiaketa

Aurretik aukeratutako 100 taldeak beraien ideiak defendatzera joan ziren epaimahai baten aurrera, eta horiek 50 onenak aukeratu zituzten. 50 ideia finalista horiek Demako aholkularien laguntza jaso zuten, eta hala, 3 hilabeteetan zehar enpresa proiektua garatzen lagundu zieten.

### Sariak banatzeko ekimena

Ideia onenek saria jasotzen dute, eta DEMAko epaimahai baten aurrean egindako defentsaren ondoren, enpresa proiektu onenak zehazten dira, eta bertan egoten dira ENPRESARI programako deialdian parte hartu duten hezkuntza zentroetako parte-hartzaileak, irakasleak eta zuzendariak.



HELBURUA:  
Bizkaiko gazteen artean  
enpresako kultura  
ekintzailea sustatzea.



KOLEKTIBO  
ONURADUNA:  
Bizkaiko Lanbide Heziketako  
zentroetako ikasleak eta  
irakasleak.

## ENPRESARI PROGRAMA 2017KO EMAITZAK

URTEA	TAILERRAK			IDEIAK			PROIEKTUAK		
	KOPURUA	ZENTROAK	PARTE-H.	IDEAK	ZENTROAK	PARTE-H.	PROIEK.	ZENTROAK	PARTE-H.
2017	113	28	2.779	227	22	639	50	21	141
2001etik	1.479	-	30.245	2.818	-	7.065	655	-	1.712

## ENPRESARI PROGRAMA 2017KO SARIDUNAK

	SARIA	PROIEKTUA	JARDUERA	ZENTROA
1.	1.500€	LAUBURU 05	Edarietan burundanga edo bestelako drogak dauden edo ez jakinarazten duen produktu bat sortzea eta merkaturatzea.	ZABALBURU IKASTETXEA
2.	1.200€	FONDOS Y SALSAS	Sukaldea ezartzea kalitate handiko hondoak eta saltsak egiteko eta jatetxeetan horiek banatzea, denbora eta espazio arazoak murriztuz.	LEIOAKO OSTALARITZA <sup>2</sup> ESKOLA
3.	1.000€	ALFAGARBI	Anbulantziak garbitzeko eta desinfektatzeko sistema beharrezko asepsia bermatzeko eta erabiltzaileetan kutsadurak eta infekzioen arriskuak gutxitzeko; pazienteak eta langileak.	BILBOKO GURUTZE GORRIKO LH INSTITUTUA
4.	500€	BILDON	Dronen tailer profesionala, mantentze eta konponketa zerbitzuak eskaintzen dituena, baita piezen eta tresnen salmenta ere. Aisialdiko ekimenak antolatzea dronen hegaldietan afizionatuak direnei.	OTXARKOAGA LH ZENTROA
5.	500€	TOBBY SMART COLLAR	Animaliak eta pertsonak lokalizatzeko sistema diseinatzea, ekoiztea eta banatzea.	CIFP TARTANGA LHII
6.	500€	KLICO	Web plataforma bat garatzea jatetxe eta hotelei zuzenduta hainbat hizkuntzetan. Plataforma horrek zenbait aplikazio ditu bezeroak smartphonen bitartez sartu ahal izateko eta zuzenean eskariak egiteko.	CIFP TXURDINAGA LHII
7.	500€	AUXI KOOPERATIBA	Enpresei, prestakuntza zentroeiei eta erakundeiei zuzendutako lehen sorospeneko prestakuntza, erreakzio denbora oinarrikoa denean istripu larriak gertatzea ekiditeko.	HARROBIA IKASTOLA
8.	500€	CLINICA DENTAL IBON VICENTE	Sopelan kokatutako hortz klinika hau aitzindaria da CAD CAM teknologia erabiltzen. Horren bitartez inplanteak diseinatzen dira eta pieza personalizatuagoak eta zehatzagoak egin daitezke.	CIFP NICOLÁS LARBURU LHII
9.	500€	IKAS GOZOA	Hautzaindegi honetan espazio ezberdinak daude umeen zentzu eta trebetasun ezberdinak garatzeko.	SAN JOSÉ DE CALASANZ IKASTETXEA
10.	500€	BARBERAS	BARBERAS Gizonentzako bizartegi-ileapaindegia, edertasun zerbitzuak dituena, eta ingurumena errespetatzen duten kalitate altuko produktu naturalak erabiltzen dituena.	CIFP SAN JORGE LHII



Bizkaia  
dema

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO





# ABIAN

PROGRAMA  
ENPRESEN SORKUNTZA

## ZERBITZUAREN DEFINIZIOA:

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

### • KUDEAKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA EKINTZAILEENTZAT

Iraupena: 30 ordu

Edukia:

- Proiektu bat aztertzeko punturik garrantzitsuenak
- Legezko izapideak eta alderdi juridikoak
- Enpresa kudeatzeko oinarrizko kontzeptuak

### • NEGOZIO PLANERAKO AHOLKULARITZA

Edukia: aldi behin bilerak egingo dira banaka, eta, berariazko metodologia erabilita, proiektuan esku hartzen duten aldagaiak aztertuko dira, negozio plana garatuko da, eta plan horrek bide emango du enpresa abian jartzeari buruzko azken erabakia hartzeko. Osagarri gisa, DEMAK aukera eskaintzen du enpresari aplikatu ahal zaizkion laguntzen mapak egiteko eta autoenplegurako BFaren diru-laguntza izapidetzeko

### PROIEKTU BIDERAGARRIA > ENPRESA ABIAN JARTZEA

**Laguntzak:** Aholkularitza zerbitzurako %100eko diru-laguntza, eta enpresa abian jartzeko gehienez 5.000 euroko diru-laguntza eskuratzeko aukera.

**Epeak:** Deialdia beti dago zabalik.



### HELBURUA:

Enpresa-negozioak sortu eta abian jar daitezzen sustatzea, negozio ideiak enpresa proiektu bihurtuz, bideragarritasun eta zehaztasun indize handiekin, aldi behin banakako aholkularitza eskainiz.



### HARTZAILEAK:


Bizkaian erroldatuta dauden eta enpresa ideiarekin bat duten pertsonak.

## ABIAN PROGRAMA 2017KO EMAITZAK

2017	Emandako ikastaroak	17	HISTORIKOA, ORDUTIK	Emandako ikastaroak	135
	Negozio ideiak	674		Negozio ideiak	10.426
	Negoziorako planak	556		Negoziorako planak	4.913
	Sortutako enpresak	224	1989	Sortutako enpresak	2.526

## ABIAN PROGRAMA EKINTZAILEAREN PROFILA 2017

### GENEROAREN ARABERA Guztira: 774




### NEGOZIO IDEIAK JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA Guztira: 774

• Nekazaritza eta abeltzaintza	1%
• Energia eta ura	0,8%
• Beste manufaktura industria batzuk	1%
• Eraikuntza	3,9%
• Merkataritza, konponketak	23,3%
• Garraioa eta komunikazioak	3,3%
• Finantzak, aseguruak, enpresei emandako zerbitzuak	4,7%
• Bestelako zerbitzuak	26,1%
• Profesionalak	20%
• Artistak	2,2%
• Ostalaritza	13,7%

### PRESTAKUNTZA AKADEMIKOAREN ARABERA Guztira: 774



### ADINAREN ARABERA Guztira: 774





# TALDEKA

PROGRAMA  
EKINTZAIETZA TALDEAK

**Honako fase hauetan egituratuta dago programa:**

### Lehenengo fasea:

Hilabete eta erdian prestakuntza handia eman zaie parte-hartzaileei taileretan, eta bertan pertsona barruko eta pertsona arteko trebetasunak garatu eta entrenatu dituzte. Taldekako coaching teknikekin lan egin da, eta hala, saioak coach batek gidatu ditu, horiek dinamizatuz.

### Bigarren fasea:

Hurrengo bi hilabeteetan, parte-hartzaileek ekintzailtzako, sormeneko eta negozio aukera berrietarako giltzarrietan lan egin dute. Era berean, beraien proiektuei lotutako tokiko merkatuaren azterketak egin dituzte, eta eskualdean negozioarako aukera berriak detektatu dituzte. Prestakuntza guztia lankidetzan gauzatu da, sinergiak eta ezagutzak eta esperientziak transmititzea sortuz, diziplina anitzeko talde heterogeneoan.

Modu paraleloan, negozio eredia garatzeko lan pertsonalizatua egin da banakako aholkularitzen bitartez.

### Hirugarren fasea:

2017an zehar 2016ko eta 2017ko deialdietatik eratorritako enpresak martxan jarri dira.

Lehenengoek 5.000 euroko diru-laguntza jaso dute martxan jartzeko eta 2.000 euro osagarri eman zaizkie aholkularitza espezifikorako.

Bigarrenek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailaren 2017ko Autoenplegurako Laguntzen Dekretura sarbide promozionatua izan dute.



**HELBURUA:**  
Langabetuak lanean aktibatzea, ekintzailtzan prestakuntza ematea eta % 60k bere lanpostua sortzea lortzea.



### KOLEKTIBO ONURADUNA:

- Laneko kualifikazioa duten etorkinak/langabetuak.
- Hirugarren adinekoen zerbitzuen alorrean prestakuntza eta/edo lan esperientzia duten langabetuak.
- Aisiarekin, kirolarekin eta ongizatearekin lotura duen prestakuntza eta/edo esperientzia duten langabetuak.


## TALDEKA EKINTZAIETZA TALDEAK

	EZKERRALDEA-MEATZALDEA	BILBO	URIBEKOSTA-GETXO-LEIOA-ERANDIO	SENIORRAK	ETORKIN PROFESIONALAK	SILVER ECONOMY	AISIA, KIROLA ETA ONGIZATEA
Parte-hartzaileak					20	13	16
Prestakuntza fasea					20	11	
Negoziorako planak					13	2	
Sortutako enpresak	12	5	8	8	5	1	


## TALDEKA PROGRAMAREN ESTADISTIKAK

2017KO 3 DEIALDIETAKO PARTE-HARTZAILEEN PROFILA (ETORKIN PROFESIONALAK, ETA SILVER ECONOMY ETA AISIA, KIROLA ETA ONGIZATEA ) GUZTIRA 49 PARTE-HARTZAILE


### GENEROAREN ARABERA Guztira: 49




### ADINAREN ARABERA Guztira: 49



### 2017AN SORTUTAKO ENPRESAK JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA Guztira: 39







# ESKUTIK

PROGRAMA  
MARTXAN JARTZEA

## ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

Programarako ad-hoc diseinatutako kudeaketa tresna aplikatzea. Kostuen, marketin eta merkataritzan, kostuen analisisan eta prezioak finkatzeko arloetan laguntza espezifiko ematea.

Metodologiaren aplikazioa eta lanena arlo ezberdinetan banakako aholkularitzako bileretan egiten dira.



## HELBURUA:

Autoenplegu enpresa eta proiektuei laguntza ematea jarduerako lehenengo urtean zehar. Horretarako, aholkularitza espezializatu emango da beraien beharretara egokituta, enpresaren aldi kritikoenetako batean jarraikortasuna izatea sustatzeko.




## KOLEKTIBO ONURADUNA:

Taldeak- Ekintzailak  
Taldeak programaren deialdi ezberdinetan sortutako enpresak.

## ESKUTIK PROGRAMA 2017KO EMAITZAK

	EZKERRALDEA-MEATZALDEA	BILBO	URIBEKOSTA-GETXO-LEIOA-ERANDIO	SENIORRAK	ETORKIN PROFESIONALAK
Aholkatutako enpresa kopurua	12	5	8	8	5

## KOKAPENAREN ARABERAKO DATUAK





# INDARTU

PROGRAMA

ENPRESEN SENDOTZEA ETA HAZKUNDEA



HELBURUA:

- Enplegua mantentzea eta sortzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzeko ekarpenak egitea
- Bizkaiko enpresen dimentsioa handitzea fakturazioari eta/edo errentagarritasunari dagokionez.
- Bizkaiko enpresen lehiakortasuna gehitzea.
- Zailtasunak dituzten enpresei laguntzea.

## INDARTU PROGRAMA 2017KO EMAITZAK

2017an zehar Deloitte-rekin lankidetzan sortutako metodologia baliozkotzeko 7 enprekin lan egin da plan pilotu batean.

ENPRESA	JARDUERA	LANGILEAK	KOKAPENA
PROYCO BIZKAIA, S.L.	Ingeniaritza eta eraikuntza	3	Barakaldo
GRAFICAS LIZASO, S.L.	Edizio grafikoa	15	Amorebieta-Etxano
AIDA INGENIERÍAS, S.L.	Egitura metalikoak fabrikatzea	20	Artea
CELULOSAS VASCAS, S.L.	Artikulu higieniko eta osasunekoen salmenta	40	Amorebieta
AISILAN XXI	Aisialdiko eta denbora libreko jarduerak. Espazio kulturalen kudeaketa.	30	Amorebieta
BILBAO ARCHITECTURE TEAM	Arkitektura, diseinu eta eraikuntza estudioa	15	Bilbao
LALUCA AGENCIA DE COMUNICACIÓN	Komunikazio eta diseinu agentzia	3	Getxo







# ANEZKA

PROGRAMA  
ENPLEGU ANEZKAK



## DEFINIZIOA

Anezkak langabetuez, boluntarioez, pertsona aktiboez, sozialki ikusgarriak direnez eta solidarioez osatutako talde heterogeneoak dira, eta koordinatzaile baten laguntzarekin antolatzen dira enplegu bilaketa sustatzeko, bai besteren kontura baita norbere kontura ere. Horretarako, kide guztien artean lan merkatuan sartzeko bideak eta moduak aztertzen dituzte.

## 2017ko JARDUKETA

- 2016an hasitako 8 anezkekin jarraitu da, martxoan/maiatzean bukatu diren arte. Bertan, 145 langabetuk parte hartu dute guztira eta horietatik 99 emakumeak izan dira. Parte-hartzaileen % 58 laneratu da.
- 5 anezka jarri dira martxan eta guztira 115 langabetuk parte hartu dute Bizkaiko bost eskualde ezberdinetan. Parte-hartzaileen % 62 emakumeak izan dira eta % 36 gazteak.

## EMAITZA HISTORIKOAK

- 16 anezka martxan jarri dira
- 327 parte-hartzaile, % 66 emakumeak
- Bizkaiko eskualdeetan % 67ko parte-hartzea
- Bukatutako anezketan % 58ko laneratzea

## BIZKAIKO ANEZKAK ESKUALDEETAN



**HELBURUA:**  
Parte-hartzaile guztien gaitasun pertsonalak eta enplegarritasuna hobetzea.



**ONURADUNAK:**  
Langabetuak edo enplegua hobetzeko prozesuetan daudenak, lanak anezkara joatea oztopatzen ez baldin badie.

## ANEZKA 2017KO EMAITZAK

ANEZKAK	PARTE-HARTZ	E/G	KOKAPENA	BUKA.EPEA
BILBO IV	20	14/6	Bilbao	Marzo 2018
ESKUALDEA	22	17/5	Erandio	Marzo 2018
EZKERRALDEA	25	14/11	Barakaldo	Marzo 2018
NERBIOI GARAIA	23	12/11	Basauri	Marzo 2018
MEATZALDEA	25	14/17	Muskiz	Marzo 2018
<b>GUZTIRA</b>	<b>115</b>	<b>71/44</b>		

	ANEZKAK	PARTE-HARTZ	E/G	LANERATZEA
2017	5	115	71/44	-
HISTORIKOA	16	327	216/111	58%

## EnLANzar

ERANTZUNA ENPLEGUA BILATZEN JARRAITZEN DUTEN ANEZKAKO LANGABETUEI

### Zerbitzuak:

- Lanerako espazioa
- Jardueren programazioa: Tailerrak, mahai inguruak edo bisitak eta networking enprekin. 14 ekintzetan 238 pertsonak parte hartu zuten.
- Laneko orientazio inbidividualizatua: 23 pertsonak eskatu eta jaso zuten zerbitzua. Orientazioko 76 saio.
- Enplegu eskaintzak eta intereseko ekimenak eskaintzeko zerbitzua. Hauek hedatu dira horien bitartez:
  - 192 lan eskaintza
  - Enplegu publikoko 14 deialdi
  - Prestakuntza, ekimen, hitzaldi eta kongresuetako 75 deialdi
  - 12 intereseko lotura enpresei, lan poltsei eta sare sozial profesionaleri buruz.





# BIZKAIKER

BIZKAIKO ENPLEGU BEHATOKIA

2016. urtearen hasieran, DEMAk Bizkaiker web orria sortu zuen, hain zuzen ere, enplegu behatokia, Bizkaiko herritarrei enplegarritasunarekin zerikusia duten gaiak hurbiltzeko. Web orri honek hurrengo helburuak ditu: eskualdean eta tokian ikuspegi kuantitatibo eta kualitatibotik lan-merkatuaren funtzionamendua eta bilakaera ulergarriago bihurtzea.

Bizkaiker behatokia Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eskura jartzen duen tresna da, Bizkaiko lan-merkatua eta produkzio-egoera aztertzeko. UPV/EHUn laguntzaz, DEMAk kudeatzen du.



## ZER ESKAINTZEN DU BIZKAIKER WEB ORRIAK?

**Lan-demografia:** orri honek langabetuen banaketari buruzko informazio zehatza eta eguneratua eskaintzen du, sexuaren, adinaren, ikasketa mailaren eta langabezia egoeran emandako denboraren arabera. 5.000 biztanletik gorako udalerriei eta eskualdeei erreparatzen zaie.

**Enpresen demografia:** halaber, enpresa kopuruari buruzko informazioa ematen du. Azkeneko 12 hilabeteetan udalerri eta eskualde bakoitzeko enpresa juridikoak eta fisikoak ageri dira, baita antzinasunaren, jarduera sektorearen eta enpresa mota bakoitzaren alta eta bajen arabera banaketa ere.

**Laguntza-erakundeak:** azkenik, udalerri eta eskualde bakoitzean enplegu eta ekintzaitzarako erakundeen inguruko informazio zehatza azaltzen da.

Web orri honetako informazioa hurrengo datuei esker egituratzen da: Lanbidek argitaratutako langabezia datuak, Foru Ogasunaren JEZaren erregistro datuak eta behatokiaren lana burutzeko DEMAk kudeatzen dituen beste datu base batzuk. Informazioa sei hilez behin eguneratzen da, urte bakoitzari dagozkion martxoko eta urriko datuekin.





# EKITALDIAK 2017

DEMAK ANTOLATUTAKO JARDUNALDIAK

## EKINTZAIETZA SOZIALEKO JARDUNALDIA: EKINTZAIETZA, BIZITZA ETA IRAUNKORTASUNA

**Eguna:** Martxoak 2  
**Lekua:** Bizkaia Aretoa (UPV/EHU).

Ekintzailtza sozialari zuzendutako jardunaldi honetan hainbat eragile batu ziren, hausnartzeko eta proposamenak egiteko, gaur egungo ekintzailtza ekosistema hobetzeko ekarpenak egin nahi dituztenak eta esperientziak ezagutu nahi dituztenak hain zuzen ere. Jarduera modu batean edo bestean ekintzailtzarekin lotuta garatzen duten pertsonen zuzenduta egon zen, iraunkortasun eta bideragarritasun giltzarrietan pentsatzeko interesa dutenei.

**LEHENENGO ZATIA: ENTZUN ETA INSPIRATU**  
Toki eta estatu mailan garatzen ari diren hainbat ekintzailtza ekimen aurkeztu ziren: Prestakuntza eta laguntza programak, esperientziak, praktikak, tresnak, sare informalak etab. Gainera, ekintzailtzan ari diren pertsonen zuzeneko testigantzak entzun ahal izan ziren.

**Parte-hartzaileak guztira:** 200 pertsona

**BIGARREN ZATIA: ELKARRIZKETAN ARITU ETA PARTEKATU**  
Kontserbatorio formatuan egindako lankidetzeta saioa, ekintzailtzarekin, berrikuntza sozialarekin, bizitzarekin eta iraunkortasunarekin lotutako programak eta neurriak sustatu eta eratzeko ekintzak eta hobekuntza estrategiak planteatzeko.

**Parte-hartzaileak guztira:** 51 pertsona

## EMPRENDIT ON, GAZTEEN EKINTZAIETZA FOROA



**Eguna:** Martxoak 2  
**Lekua:** Oteiza aretoa, Bizkaia Aretoa (UPV/EHU).

Ekimen aitzindari honetan ekintzailtza inguruan lan egiten duten eragile eta erakunde nagusiak eta prestakuntza profesionala eta/edo unibertsitatekoa duten gazte ekintzailtza batu ziren, eta gazteak izan ziren protagonistak, hitz egiteko aukera izan baitzuten beraien beharren eta erronken berri emateko.

**Parte-hartzaileak guztira:** 81 pertsona



## GIZARTEGUNE JARDUNALDIA: "LANEKO ORIENTAZIOA, ORAINA ETA ETORKIZUNA"



**Eguna:** Martxoak 2  
**Lekua:** CRAI liburutegia (Ellacuría aretoa).  
Deustuko unibertsitatea.

Gizarteguneren V. topaketa "LAN ORIENTAZIOKO oraina eta etorkizuna" gaiari buruz. Lan orientazioko teknikariei, adituei eta profesionalei eta eragile pribatu eta publikoei zuzenduta. Guztiak batu ziren Bizkaian gaur egun dauden lan orientazio zerbitzu ezberdinen egoera aztertze eta ezagutza sortu eta hedatzeko.

**Parte-hartzaileak guztira:** 180 pertsona



**Bizkaia**  
dema





# EKITALDIAK 2017

PARTAIDETZA AZOKETAN

## KIROLAZ BIZIZ, BIZKAIA KIROLA TRAINING DAY

**Eguna:** Urtarrilak 26

**Lekua:** Deustuko unibertsitatea eta Bizkaia Aretoa (UPV/EHU).

Ekimen honen oinarria kirola da, eta DEMAK unibertsitateko ikasleen artean bere jarduera ezagutarazteko, komunitate horretara hurbiltzeko eta enpresa ideiak dituzten pertsona sustatzaileetara hurbiltzeko parte hartu zuen; hori guztia Bizkaian enplegua sortzeari laguntzeko eta enplegua ahalbidetzeko.



## DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO XIII. ENPLEGU ETA EKINTZAILITZA FOROA



**Egunak:** Martxoak 29 eta 30

**Lekua:** Deustuko unibertsitatea.

Foro honetan eragile enplegatuak, azken ikasturtean dauden ikasleak eta lehenengo lan aukera edo lana hobetzea bilatzen ari diren graduatuak batzen dira eta foroaren helburua enpresa mundua unibertsitateko kolektiboari hurbiltzea da, eta horiek laneratzeko eskuragarri dagoen informazio guztia ematea.

DEMAK, bere standean enpleguaren eta ekintzaitzaren inguruko ekintza arloak, zerbitzuak eta programak eskaini eta horiei buruzko informazioa eman zuen.

Enplegurako erremintak  
Herramientas para el empleo



## ENPLEGU FOROA "WORKINN"



**Egunak:** Ekainak 7 eta 8

**Lekua:** BEC - Bilbao Exhibition Center.

Foro hau enplegua bilatzen ari diren pertsoneri zuzenduta dago, bai lanean daudenak eta lana aldatu nahi dutenak, baita langabezian daudenak eta lan merkatura sartu nahi dutenak ere. Bertan, ekintzaitza eta enpresak sortzea laneratzeko irtenbide bezala aurkezten dira eta hala, parte-hartzaileen enplegarritasuna handitzen da.

Demak stand bat izan zuen bertan, eta bere jarduketa ildoen berri eman zuen eta Anezka enplegu anezkei buruzko programaren inguruko hitzaldi bat eman zuen.



**Bizkaia**  
dema